

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

30/2009 FORU DEKRETUA, irailaren 15(e)koa, bingo kartoiak erosteagatik ordaindu beharreko tasa aldatzen duena.

Abenduaren 23ko 9/2008 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2009ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, eguneratu zuen, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bingo kartoiak erosteagatik ordaindu behar den tasaren zenbatekoa.

Orain dela gutxi esleitu da bingo kartoiaren moldaketa, inprimaketa eta banaketa zerbitzua, eta horrek kartoiaren kostua murriztea ekarri du berarekin. Horren ondorioz, proportzionalki jaitsi da kartoiaren prezio unitarioa.

Zenbait zerga neurri onartzeko maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian arautzen da bingo kartoiak erosteagatik ordaindu beharreko tasa. Xedapen gehigarri horren seigarren atalak dio zenbatekoa exijitzeko oinarri gisa erabiltzen diren kuantifikazio elementu eta irizpidetzat hartuko dela bingo kartoiaren hornikuntzaren kostu unitarioa, kon-tuan hartu gabe ageriko balioa; zazpigarren atalak, berriz, ele-mentu eta irizpide horiek aplikatuta ateratzen diren zenbateko finkoak foru dekretu bidez aldatzea ahalbidetzen du, baina agintzen du Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauak 7. artikuluan jasotako baliokidetasun printzipiora egokitu behar duela proposatutako zenbatekoak.

Foru dekretu honen helburua da bingo kartoiak erosteagatik ordaintzen den tasa aldatzea eta zenbateko berria finkatzea Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauak 7. artikuluan ezartzen duen baliokidetasun printzipioaren arabera.

Hori guztia dela-eta, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau,

XEDATU DUT

Artikulu bakarra. Bingo kartoiak erosteagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa aldatzea.

Bingo kartoiak erosteagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa aldatu da eta kartoi bakoitzeko 0,006784 eurotan finkatu da zenbateko berria.

Amaierako xedapena.

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Donostia, 2009ko irailaren 15a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Pello Gonzalez Argomaniz.

(5049)

(11486)

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 30/2009, de 15 de setiembre, por el que se modifica el importe de la tasa por la adquisición de cartones del bingo.

El importe de la tasa por la adquisición de cartones de bingo fue actualizada con efectos desde 1 de enero de 2009 por la Norma Foral 9/2008, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2009.

La reciente adjudicación del servicio de composición, impresión y distribución de los cartones del bingo ha supuesto una reducción de su coste, lo que ha conllevado una disminución proporcional del importe del coste unitario del cartón.

La tasa por la adquisición de cartones de bingo viene regulada en la disposición adicional cuarta de la Norma Foral 5/2002, de 13 de mayo, por la que se aprueban determinadas medidas tributarias, cuyo apartado seis establece que se considerarán elementos y criterios de cuantificación determinantes del importe exigible, el coste unitario del suministro de los cartones de bingo, independientemente de su valor facial; a su vez, su apartado siete permite que, mediante Decreto Foral, se modifiquen las cuantías fijas resultantes de la aplicación de dichos elementos y criterios, debiendo ajustarse la cuantía propuesta al principio de equivalencia establecido por el artículo 7 de la Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de Tasas y Precios Públicos.

El objeto del presente Decreto Foral es modificar el importe de la tasa por la adquisición de los cartones del bingo, fijando su cuantía de conformidad con el principio de equivalencia establecido en el artículo 7 de la Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, de Tasas y Precios Públicos.

Por todo ello, a propuesta del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo único. Modificación del importe de la tasa por la adquisición de cartones de bingo.

Se modifica el importe de la tasa por adquisición de cartones de bingo, que queda establecido en 0,006784 euros por cartón.

Disposición final.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 15 de setiembre de 2009.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Pello Gonzalez Argomaniz.

(5049)

(11486)